



VOCALIA TALDEA

TXOSTENA 2010

AURKIBIDEA

3 VOCALIA TALDEA, emakume abesbatza

5 BASILIO ASTÚLEZ, zuzendari artistikoa

6 SARIAK

8 KONTZERTUAK

13 DISKOGRAFIA

14 ESTREINALDIAK

16 PROGRAMAK

17 MARIA MATER

18 PERGOLESI-GALUPPI

20 HAYDN

21 MUSIKA ERROMANTIKOA

22 MISSAE

23 CLOSE HARMONY

24 CAROLS

25 KONTAKTUA



VOCALIA TALDEA

EMAKUME ABESBATZA

Vocalia Taldea emakume abesbatzak bere ibilbidea 2000 urtean abiatu zuen. Haren gaur egungo zuzendari den Basilio Astulezen inizatibaz sortua izanik, Vocalia Euskal Herriko musikari profesional gazteen bilaketa eta kezka edo jakinminak gauzatzen diren proiektua da. Taldearen apustua ahots talde egonkor bat sortzea izan da, musikalki eta teknikoki maila altuagokoa zen erreperitorio bat lantzeko asmotan.

Gaur egun **Vocalia Taldea** Euskal Autonomia Erkidegoko 3 probintzietatik datozen eta abesbatza munduan eskarmentu handia duten 25 kantariz osatua dago. Taldearen programazio ausartek eta taularatze zainduak erreferente bihurtu dute gaur egungo abesbatza giroan.



Vocaliak nagusiki a cappella den musika lantzen du, hasi garai klasikotik eta musika garaikidera bitarte, bai euskal musika zein nazioartekoa. Aldi berean, XX eta XXI mendeetako erreperitorioa aztertzen lan handia egiten du eta musika sorkuntza berriak sartzen ere saiatzen da gaur egungo konpositoreen lanari esker. Honek guztiak taldea etengabe berritzen eta adierazkortasuna gehitzen joatea dakar. Konpromezu honi esker Vocalia Taldeak munduko txoko desberdinetako hainbat autoreri obra berriak eskatu eta estreinatu dizkio eta modu honetan konpositore kopuru ederrarekin elkarlanean aritzeko aukera izan du.



Bere sorreratik **Vocalia Taldea** ziklo eta jaialdi askotara gonbidatu izan dute, bai Espainia mailan bai eta Europan ere (Italia, Frantzia, Irlanda, Belgika...). Taldearen kontzertuek oso kritika onak jaso izan dituzte, beti ere honen kalitatea, originaltasuna eta berrikuntza azpimarratuz. Taldea hainbat orkestra, solista eta kultur talderekin elkarlanean aritzen da maiztasunez eta nazioarteko lehiaketatan 20 sari baino gehiago jaso izan ditu.



BASILIO ASTULEZ

ZUZENDARI ARTISTIKOA

Bizkaiko Leioako Udal Kontserbatorioan irakasle da eta bertatik, haur eta gazte kantu korala bultzatzeko lan handia egiten du. Kantika Korala, La Kantoria eta SJB koruen buru, sari eta esker on anitz jaso ditu, bere kantu eskola, gaur egungo musika inguruko erreferente bihurtuz.

Aipaturikoaz gain, emakumezko **Vocalia Taldearen** sortzaile eta zuzendaria ere bada , eta honekin 20 sari baino gehiago lortu ditu ospe handiko nazioarteko lehiaketatan, 10 urteko ibileran zehar.



Talde hauen buru, Europa eta Amerikan zehar bira ugari egin ditu eta 10 disko grabaketa zuzendu eta editatu ditu.

Hezkuntza-erakunde, unibertsitate eta Estatuko hainbat koru federazioekin kolaboratzen du. Lehiaketatan epaimahai gisa ere parte hartzen du askotan, eta horrez gain, Espainia eta European zehar kantu korolari buruzko mintegiak ematen ditu.

SARIAK

Vocalia Taldea sortu zenetik badira hamar urte eta denbora honetan mundu mailako lehiaketa entzutetsuenetan parte hartu du, sari eta goraipen garrantzitsuak eskuratuz.

 2009. 38. FLORILÈGE VOCAL DE TOURS, (FRANTZIA)

- Ahots berdinen atalean lehen saria.
- Egitarau librearen atalean bigarren saria.
- John Pamintuan filipinarraren Oremus lanari, “sortze berriko lanik onenaren” sari berezia.
- Basilio Astulezi zuzendari onenaren sari berezia.

 2007. TORREVIEJAKO .54. “CERTAMEN INTERNACIONAL DE HABANERAS Y POLIFONÍA”

- “Ciudad de Torrevejea” sari berezia.

 2006. TOLOSAKO 38. NAZIOARTEKO ABESBATZEN LEHIAKETA

- Polifonia atalean lehen saria.
- Folklore atalean bigarren saria.

 2006. CORK-EKO 52. NAZIOARTEKO LEHIAKETA, (IRLANDA)

- Entzulegoaren sari berezia.

 2005. 53. GUIDO D’AREZZO NAZIOARTEKO LEHIKETA, (ITALIA)

- XX. Mendeko egitarauaren lehen saria.

2003. MAASMECHELEN-EN 5. NAZIOARTEKO LEHIAKETA, (BELGICA)

- -Ahots berdinen atalean lehen saria
- -Lehiaketako talderik onenaren lehen sari nagusia

2002. TOLOSAKO 34. NAZIOARTEKO ABESBATZEN LEHIAKETA



- Polifonia atalean lehen saria.
- Folklore atalean bigarren saria
- Euskal lanik onenaren sari berezia

2001. 4. ABESBATZEN SARIKETA NAZIONAL NAGUSIAN

- Lehiaketako talderik onenaren lehen sari nagusia

2000. ZUMARRAGAKO (GIPUZKOA) 2. ANTIGUA ABESBATZAK LEHIAKETA

- Ahots berdinen atalean lehen saria
- Lehiaketako talderik onenaren lehen sari nagusia

KONTZERTUAK

Hona hemen Vocalia Taldeak azken hamar urteotako ibilbidean parte hartu izan duen hainbat ekitaldien zerrenda:

1999

99.12.28an Gasteizko San Pedro elizan Vocalia Taldearen lehen kontzertua.

2000

00.04.08an Zumarragako (Gipuzkoa) Antigua Abesbatzak IV. lehiaketan partaidetza.

00.12.26an Gasteizko Capilla del Noviciado de las Carmelitas elizan gabon kontzertua.

2001

01.04.28an eta *01.04.29an* Griñonen (Madrid) III. Abesbatzen Sari Nazional Nagusian partaidetza.

01.12.15an López de Ayala Antzokian (Badajozen) IV. Hermano Daniel Topaketan partaidetza.

2002

02-02-14 Gasteizko Europa Kongresu-Jauregian ospatutako Informazio Gizartearen Inguruko II Jardunaldien hasiera emate ekitaldian parte hartzea.

02.05.08an Leioako Udal Musika Kontserbatorioan (Bizkaia) eskainitako kontzertua.

02.10.25an Santurtziko (Bizkaia) XXIII. Nazioarteko Abesbatzen Topaketan parte hartzea.

02.11.01an Tolosako (Gipuzkoa) 34. Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte hartzea.

2003

03.05.23ean Oreretako(Gipuzkoa) Kaputxinoen elizan ospatzen den Musikaste Zikloan parte hartzea.

03.08.16an Limousin-go (Frantzia) Le Dorat Kolegiatan ospaturiko Musique du Haut Limussin Jaialdian parte hartzea.

03.10.25an Maasmechelen-go (Belgika) Nazioarteko Lehiaketan parte hartzea.

03.11.01an Urrugne-ko elizan Chant Choral au Pays Basque Nazioarteko Jaialdian partaidetza.

2004

04.04.2an Hondarribiko parrokian ospaturiko Hondarribiako XXII. Eliz Musika Zikloan parte hartzea.

04.04.26an Gasteizko Europa jauregian San Prudentzio jaien pregoian partaidetza.

04.05.10/15ean Legnano-ko (Italia) Santos Mártires elizan ospaturiko La Fabrica del Canto Nazioarteko XIII. Jaialdian partaidetza.

04.06.27an Avila-ko San Francisco Auditorioan ospaturiko VII. Ciudad de Ávila Polifonia Jardunaldian partaidetza.

04.08.19an Biasteri-ko (Araba) Juan Batalatzailearen Elizan, 65. Donostiako Musika Hamabostaldian partaidetza.

04.12.03an Donostiako Kursalean, ETB-rako grabaketa.

2005

05.05.21an Logroño-ko Udal Auditorioan ospaturiko XXIII. Abesbatz Musika Zikloan partaidetza

05.06.29an Jovellanos Antzokian (Gijon), ospaturiko La Mar de Voces Jaialdian partaidetza

05.07.08/10ean Torre del Mar (Malaga) San Andrés Apostol parrokian ospaturiko XVIII. José Hidalgo Abesbatzen Topaketan partaidetza

05.08.11ean Gernikako Santa Maria elizan, 66. Donostiako Musika Hamabostaldian partaidetza

05.08.24/27an Italian 20. Guido d'Arezzo Nazioarteko Leihaketan partaidetza

05.11.05ean Basauriko (Bizkaia) San Pedro elizan, Abesbatzen XXXII. Basauri Agerketan partaidetza

05.11.12ean Donostiako Kursaalean ETB-rako grabaketa

2006

06.02.18an Amorebieta-Etxanoko (Bizkaia) Zornotza Aretoan kontzertua

06.04.01ean Pasai Antxo-ko (Gipuzkoa) San Fermin elizan kontzertua

06.04.29/30ean Irlandan, 52. Cork International Choral Festival Lehiaketan partaidetza

06.05.27an Basauriko (Bizkaia) San Miguel Elizan kontzertua

06.11.01/05ean Tolosako (Gipuzkoa) 38. Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan partaidetza

06.11.18an Mungiako (Bizkaia) San Pedro elizan kontzertua

2007

07.03.17an Donostian Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Egoitzan ospaturiko Miramoneko Matinée-tan partaidetza

07.13.31ean Donostiako Iglesia de las Carmelitas kontzertua

07.05.11ean Bilboko Guggenheim Museoa ETB-rako ekitaldia

07.07.28an Torrevieja (Alikante) LIII Certamen Internacional de Habaneras y Polifonía Lehiaketan partaidetza

07.08.31ean Duomo de Chivasso (Italia) kontzertua

07.09.01ean Santa Madonna Della Pieve elizan, Beinette (Italia) ospaturiko Sentieri di Musica 2007 zikloan partaidetza

07.11.10ean Zamudioko (Bizkaia) San Martin elizan kontzertua.

2008

08.06.15ean Villanañe (Araba) Angostoko Santutegian Programa Vital Araban Zehar egitarauan barne, kontzertua

08.08.10ean Gornizko (Bizkaia) Andra Mari Sortzez Garbia elizan VII. Uda Musika Jaialdian partaidetza.

08.08.13an Lekeitioko (Bizkaia) XXX. Itxas Soinua Nazioarteko Jaialdian kontzertua

08.09.13an Ugao-Miraballes-eko (Bizkaia) San Bartolome elizan kontzertua

08.09.27an Balmasedako (Bizkaia) San Severino elizan kontzertua

08.11.07an Arantzazuko Santutegian (Gipuzkoa) Arantzazu Astea Egitarauan kontzertua

2009

09.05.28/30ean Tours-en (Frantzia) 38. Florilège Vocal Lehiaketan partaidetza

09.12.20an Bilboko Euskalduna Jauregian, BIOS orkestrarekin batera kontzertua, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Organo Kontzertuen Zikloaren barne.

2010

10.03.06an Leioa Sakra Ziklorako kontzertua Leioako (Bizkaia) San Juan Bautista elizan

10.03.14an Parisko (Frantzia) Saint Pierre-Saint Paul elizan Les Musicales de Montreuil Ziklorako kontzertua

10.06.25ean Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan Maria Mater diskaren aurkezpen kontzertua

10.07.14ean BIOS orkestrarekin batera kontzertua Bakioko (Bizkaia) Santa Maria elizan

10.07.23an Nojako (Kantabria) eliz-parrokian Kantabriako Unibertsitateak antolatutako kontzertua

10.08.02an Bermeoko (Bizkaia) eliz-parrokian Bermeoko Musika Asteko egitarauan barne kontzertua

10.09.09/12an Fano (Italia) Incontro Polifonico Internazionale Jaialdian partaidetza

DISKOGRAFIA


Vocalia Taldeak, hamar urteko ibilbidean grabaketa bilduma eta irrati-telebistako programekin kolaboratzeaz gain, bi diska grabatu, ekoiztu eta argitaratu ditu. Honokoak:

NESKATXENA



2005ko Azaroan Zenarruzako Kolegiantan (Bizkaia) grabatua. Tio Pete estudioak ekoiztua, a cappella edo ahots hutsez abestutako garai eta estilo desberdinetako obrez osaturik dago (M. Duruflé, G. Holst, A. Alcaraz edota P. Sorozabalen abestiak besteak beste).

MARIA MATER



2010ko Urtarrilean Azkoitiko Santa Kruz Komentuan grabatua. NB-k ekoiztua, Ama Birjinari eskainitako testuetan oinarritutako estilo eta garai desberdinetako hainbat motetek osatzen dute diskoa (J. Brahms, P. Casals, X. Sarasola edota J. Bustoren obrak besteak beste). Grabaketan Maider Bilbao piano jolea eta Gerardo Rifón organo jolearen laguntza izan du abesbatzak. Diskoa, 2010ko ekainak 25ean aurkeztu zen Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioko Areto Nagusian.

ESTREINALDIAK

EGILEAK

Vocalia Taldearen lehentasunen artean taldearentzat bereziki idatzitako sorkuntza berriko musikarekin duen konpromezua aipatu beharra dago. Euskal nahiz atzerriko egileei agindutako musika lanen estreinaldiak sarri eramaten ditu aurrera Vocaliak, sortze prozesuak eta hauen sortzaileekin harreman zuzena izateak taldea asko aberasten baitu.

Hona hemen orain artean taldeak estreinatu izan dituen obren zerrenda:



John Pamintuan, (Filipinas)

OREMUS

2008an agindutako lana eta 2009an, 38. Florilège Vocal de Tours-eko lehiaketan sorkuntza berriko lanik onenaren saria lortu zuena. Maria Mater diskan entzun daiteke.



Tone Bianca Dahl, (Noruega)

BIRJINA MAITE

2008an agindutako gabon kanta.



Dante Andreu, (Argentina)

MAGNIFICAT

2007an **Vocali**arentzat idatzitako lana, Zamudion (Bizkaia) estreinatu zen urte berean.

AVE REGINA CAELORUM

2007an **Vocali**arentzat idatzitako lana. 38. Florilège Vocal de Tours-eko lehiaketarako egitarauan barne sartu zena eta Maria Mater diskoan entzun daitekeena.

DOLOROSA ET LACRIMABILIS

2007an **Vocali**arentzat idatzitako lana.



Xabier Sarasola, (Euskadi)

AGUR MARIA

2009an abesbatza eta organoarentzat agindutako lana. 2010eko martxoan Leioan (Bizkaia) estreinatu zena eta Maria Mater diskoan entzun daitekeena.

MENDIAN GORA

2003an **Vocali**arentzat idatzitako lana, urte berean Errenteriako (Gipuzkoa) Musikaste jaialdian estreinatu zena.



Javier Busto, (Euskadi)

MEMORARE

2008an agindutako lana. 2010eko martxoan Leioan (Bizkaia) estreinatu zena eta Maria Mater diskan entzun daitekeena.

UREPEL DOINUA

2006an **Vocali**arentzat idatzitako lana, Kanta Cantemus abesbatzarekin batera Gasteizen estreinatu zen.



Eva Ugalde, (Euskadi)

NEGUAN

2006an agindutako lana. Urte berean Gasteizen estreinatu zen eta Cork eta Arezoko lehiaketetako egitarauetan sartu zena.



Albert Alcaraz, (Alicante)

PRIÈRE

2005ean agindutako lana. Arezzo eta Tolosako nazioarteko lehiaketetan abestua, Neskaxena diskan topa daiteke.



David Azurza, (Euskadi)

OIHU HAU

2001ean ahots eta perkusiorako agindutako lana. 2002an Tolosako Nazioarteko Abesbatzen lehiaketan estreinatu eta Euskal lanik onenaren sariarekin saritua izan zena.

PROGRAMAK

POLIFONIA, FOLKLOREA, A CAPPELLA, ORKESTREKIN...

Jarraian gaur egun **Vocalia** taldeak aurrera daramatzan hainbat programa aurkezten dira. Proposamen hauez gain, kontzerturako ohiko egituraketa, hau da, garai eta estilo desberdinetako polifonia eta folklorea barne hartzen dituen programa izan daiteke, guztiak ere A cappella eta kontzertua zati bakarrean ala bitan banatua izan daitekeena. Hemen hainbat aukera berri planteatzen ditugu, gaiaren inguruko bateratasun bat izateaz gain, beste musika tresna batzuen edota hari-orkestra baten laguntza barne hartzen dutenak.

Programa bakoitzaren aurrekontua berau aurrera eramateko behar izango den taldearen eta azpiegituraren araberakoa izango da. **Vocalia Taldeak** baditu taldeko partaide ez diren baina maiz abesbatzarekin elkarlanean aritzen diren musikari laguntzaileak, eta, beraz, hauekin harremanetan jartzeko zeregina bere gain hartzeko prest dago (pianoa, organoa, orkestra, arpa...)

- Programa 1. - MARIA MATER
- Programa 2. - PERGOLESI-GALUPPI
- Programa 3. - HAYDN
- Programa 4. – MUSIKA ERROMANTIKOA
- Programa 5. - MISSAE
- Programa 6. - CLOSE HARMONY
- Programa 7. - CAROLS

Hemen aurkeztutako programak beti ere ekitaldi bakoitzaren lehentasun edota beharren arabera aldatuak izan daitezke, eta, honenbestez, dossier honetan agerturikoa proposamen bat baino ez da.

PROGRAMA 1

MARIA MATER

Andre Mariari eskainitako garai eta estilo desberdinetako hainbat motetez osatutako programa zaindua da hau. Bertan aurkezten ditugun obren artean pianoz zein organoz lagunduak ditugu batzuk eta a cappella abestuak besteak. Programa hau **Vocalia Taldearen** bigarren diskan grabatutakoa da eta Leioa Sakra musika jardunaldietan Leioan (Bizkaia) eta Les Musicales de Montreuil-en, Parisen estreinatu zen 2010eko martxoan.

PARTAIDEAK

Pianoa edo/eta organoa, emakume abesbatza.

Pianojolea: Maider Bilbao

Organojolea: Gerardo Rifón

<i>Pekka Kostianen</i>	MATER CHISTI
<i>Michael Head</i>	AVE MARIA
<i>Xabier Sarasola</i>	AGUR MARIA
<i>Eva Ugalde</i>	AVE MARIS STELLA
<i>Kentaro Sato</i>	AVE MARIA
<i>David MacIntyre</i>	AVE MARIA
<i>Pau Casals</i>	NIGRA SUM
<i>Gustav Holst</i>	AVE MARIA
<i>Francisco Ibáñez-Iribarria</i>	AVE MARIA
<i>Luis Iruarrizaga</i>	TOTA PULCHRA ES MARIA
<i>Dante Andreo</i>	AVE REGINA COELORUM
<i>Harry Robert Wilson</i>	AVE MARIA
<i>Josef Gabriel Rheinberger</i>	AVER MARIS STELLA
<i>John Pamintuan</i>	OREMUS
<i>David Hamilton</i>	AVE MARIA
<i>Dante Andreo</i>	AVE MARIA
<i>Johannes Brahms</i>	AVE MARIA
<i>Javi Busto</i>	MEMORARE

Programa hau, bai iraupenari dagokionez bai piano/organoz, zein a capella egin nahi diren obren arabera, era desberdinetara egituratu daiteke. Goian aipatutako zerrendako musika lanak, eredu bezala jarri dira eta kontzertuaren beharrian edota gustuen arabera alda daitezke.

PROGRAMA 2

PERGOLESI - GALUPPI

Jarraian aurkezten dugun programa hau ahots zurientzat idatzitako bi obra garrantzitsuren bertasio gaurkotuek osatzen dute:

Baldassare Galuppi-ren (1706-1785) **DIXIT DOMINUS** deritzana obra zoragarri eta kontrastez betea da, 1781 urtean Veneziako Ospedale degli Incurabili zeritzan neskatoentzako konposatua. Obra honen bertasioa David Larson-ek transkribatu eta egokitu du.

Giovanni Battista Pergolesi (1710-1736) autorearen **STABAT MATER** obra, zalantzarik gabe, ahots musikaren historian funtsezko pieza da. Napoles-en idatzi eta hasiera batean ahots bakarlarientzat pentsatua den obra hau guk Inglaterran C. Kennedy Scott-ek egindako moldaketa aurkezten dugu, korurako zenbaki batzuk sartuz eta hauen eta bakarlarientzako pentsatuak direnen arteko alternantzia tinbrikoarekin jolas eginez.

PARTAIDEAK

Soka orkestra edo pianoa, soprano bakarlarria, kontralto bakarlarria, emakume abesbatza.

Orkestra: BIOS Orkestra, Ana Uriarte, zuzendaria.

Pianojolea: Maider Bilbao

Bakarlariak: zehazteke

DIXIT DOMINUS *Baldassare Galuppi*

Dixit Dominus
Juravit Dominus
Judicabit in Nationibus

STABAT MATER DOLOROSA *Giovanni Battista Pergolesi*

Stabat Mater
Cuius Animam
O Quam Tristis
Quae Morebat
Quis Est Homo
Pro Peccatis

Vidit Suum
Eja Mater
Facut Ardeat
Sancta Mater
Facut Portem
Inflammatum
Quando Corpus
Amen

Programa hau G. Pergolesiren Stabat Mater deritzana, bokalak zein instrumentalak izan daitezkeen beste obra barroko batzuekin osatuz egitura daiteke eta bakarlariak ere abesbatzako partaideak, zein proiekturako berariaz kontratatutako solistak izan daitezke. Oraingo honetan proposatzen ditugun obrak bertsio egokituak izanik soka orkestra piano batez ordezkaturia izatea ere posible izango litzateke.

PROGRAMA 3

HAYDN

Bere ibilbidean emakume-ahotsentzako musikari arreta handienetarikoa eskaini zion Michael Haydn konpositoreak (1737-1806) sortutako bi lan gorenetarikoekin osatutako programa. Joseph Haydnen anai gazteena zena, Salzburgoko kapera-maisua izan zen, eta bertan berak zuzentzen zuen haur abesbatzarentzako obra ugari konposatu zituen, besteak beste, abenduaren 28an urtero ospatu ohi zuten ekitaldi garrantzitsurako.

PARTAIDEAK

Hari-orkestra, organoa, soprano bakarlaria, kontralto bakarlaria, emakume abesbatza.

Orkestra: BIOS Orkestra, Ana Uriarte, zuzendaria.

Organojolea: Gerardo Rifón

Bakarlariak: zehazteke

MISSA sub titulo SANCTI LEOPOLDI *Michael Haydn*

Kyrie
Gloria
Credo
Sanctus
Benedictus
Agnus Dei

VESPERAE in F *Michael Haydn*

Dixit Dominus
Confitebor Tibi
Beatus Vir
De Profundis
Memento Mei
Salvete Flores
Magnificat

Programa honetan, bakarlarien lana, koruko abeslariren batek edota proiektua egiteko espreski kontratutako bakarlarien batek egin dezake.

PROGRAMA 4

MUSIKA ERROMANTIKOA

XIX mendeko konposatzaile esanguratsuenetariko batzuk idatzitako musika lanez osaturiko programa da hau. Berton, a cappella abestutako obra batzuen eta organo edota pianoz lagundutako beste batzuen aukeraketa aurkezten da.

PARTAIDEAK

Pianoa eta/edo organoa, emakume abesbatza.

Pianojolea: Maider Bilbao

Organojolea: Gerardo Rifón

<i>Felix Mendelssohn</i>	LIFT THINE EYES
<i>Franz Schubert</i>	GOTT IST MEIN HIRT
<i>Gustav Holst</i>	AVE MARIA
<i>Franz Schubert</i>	STÄNDCHEN
<i>Felix Mendelssohn</i>	LAUDATE PUERI
<i>Robert Schumann</i>	IN MEERES MITTEN
<i>Franz Schubert</i>	CORONACH
<i>Johannes Brahms</i>	TREI GEISTLICHE CHÖRE
	O Bone Jesu
	Adoramus te Christe
	Regina Coeli
<i>Felix Mendelssohn</i>	VENI DOMINE

Programa hau, bai iraupenari dagokionez bai piano/organoz, zein a cappella egin nahi diren obren arabera, era desberdinetara egitura daiteke. Goian aipatutako zerrendako musika lanak, eredu bezala jarri dira eta kontzertuaren beharizan edota gustuen arabera alda daitezke.

PROGRAMA 5

MISSAE

A cappella edota pianorekin abesteko 2/3 meza aukeratu ditugu honako programarako. 10 minututik 20 minutu bitarte irauten duten obrak dira, estiloari dagokionez bateragarri edo antzeko direnak.

PARTAIDEAK

Pianoa edo/eta organoa, emakume abesbatza.

Pianojolea: Maider Bilbao

Organojolea: Gerardo Rifón

Ko Matsushita (Japonia) MISSA SECUNDA Ahots zuriak eta organoa

Gyorgy Orbán (Hungria) MISSA Nº. 6 Ahots zuriak eta pianoa

Bob Chilcott (Ingalaterra) PEACE MASS

Carl Bertil Agnestig (Norvegia) MISSA IN DISCANTU Ahots zuriak a cappella

Miklos Kocsár (Hungria) MISSA IN A Ahots zuriak a cappella

Javier Busto (Euskadi) MISSA AUGUSTA Ahots zuriak a cappella

Gabriel Fauré (Frantzia) MESSE BASSE Ahots zuriak eta organoa

Programazio honetarako edozein konbinazio aukera daiteke: Bai a cappella eran ala piano edota organoaren laguntzarekin. Proposatutako obrak adibide batzuk baino ez dira, kontratatzailearen beharrian ala nahien arabera alda daitezkenak.

PROGRAMA 6

CLOSE HARMONY

Zeharo ezberdina den proposamena! Pop eta rock mundutik datorren kantu-bilduma original bat aurkezten dugu, zinemako musika, gospel... oso berezia den tratamendu batekin eta jazz musikatik oso gertu. Carsten Gerlitz konpositore alemaniarrek emakumezko koruentzako egindako koru-konponketak lirateke. Entzule guztientzako kontzertu bikaina, guztiok ezagutzen dugun programa batekin!

PARTAIDEAK

Pianoa, bateria, baxu elektrikoa (edo kontrabaxua), emakume abesbatza.

WILL KOMMEN, BIENVENUE; WELCOME

ETERNAL FLAME

DIAMONDS ARE A GIRLS BEST FRIEND

FIELDS OF GOLD

JAMAICA FAREWELL

LA CUCARACHA

DEEP RIVER

OH HAPPY DAY

GREENSELVES

Zehaztutako kantuen zerrenda, eredu bat besterik ez da, eta kontzertua prestatzeko gustu edo beharren arabera alda daiteke. A Capella diren kantuek ere tarteka daitezke, edota kantuen iraupena aldarazi.

PROGRAMA 7

CAROLS

Benjamin Britten, XX mendeko egile britaniarraren obrarik ezagunenetakoa aurkezten dugu, “A Ceremony of Carols”, arpa eta ahots zurientzat idatzia. Ingalaterrako musika herrikoian oinarrituta dagoen Suite hau, arpajoleentzat idatzitako obrarik interpretatuenetakoa da. Programazio hau, “Dancing Day” izeneko gabonetako suite koral batekin osatzen dugu, John Rutter egile britaniarrak idatzia. Pasa den mendeko Britania Handiko egilerik ospetsuenetakoa dugu John Rutter. Obra hau pianorekin interpreta daiteke nahi izanez gero.

PARTAIDEAK

Arpa (ala pianoa), ahots zuriak.

Pianojolea: Mainer Bilbao

Arpajolea: Zehazteke.

A CEREMONY OF CAROLS *Benjamin Britten*

Procession
 Wolcum Yole!
 There is no rose
 That Yönges child
 Balulalow
 As dew in Aprille
 This little Babe
 Interlude
 In Freezing Winter Night
 Spring Carol
 Deo Gratias
 Recession

DANCING DAY *John Rutter*

Prelude
 Angelus ad virginem
 A virgin most pure
 Personent hodie
 Interlude
 There is no rose
 Conventry Carol
 Tomorrow shall be my dancing day

KONTAKTOA

Informazioa jaso eta edozein galdera egin nahi izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezkete:

Inmaculada Solaún
679-505735
misrg@hotmail.com

Olaia Arrieta
696-955911
olaia.arrieta@camaradealava.com

Basilio Astulez
649-995428
basilioastulez@hotmail.com

WWW.VOCALIATALDEA.COM